

...../..... FORU DEKRETUA, .....koa. Honen bidez Bigarren Jarduera arautzen da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile edo suhiltzaile-kabo lanpostuak betetzen dituzten langileentzat.

## ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko ekainaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 55. artikuluan jasotzen da bigarren jarduera, eritasuna edo istripua dela-eta bere lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezindurik dauden prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako funtzionarioentzat, baita 60 urte bete dituztenentzat ere, edo 55 urte bete eta hala aukeratzen dutenentzat.

Bigarren jarduera egoera administratibo berezia da, helburu nagusi duena langileen gaitasun psikofisiko egokia bermatzea, betiere zerbitzuaren eraginkortasuna eta langileen segurtasuna bermatuta.

Aipatutako 55. artikulua jasotzen du zer nolako eginkizunak izanen diren bigarren jarduerakoak, baina beharrezkoa da erregelamendu bat onestea, bigarren jardueraren esparruan bete beharreko zeregin berariazkoak garatzeko, baita egoera berezi horretara iristeko eta haren araubide aplikagarria garatzeko ere.

Aipatutako 8/2005 Foru Legearen azken xedapenetako lehenbizikoak Nafarroako Gobernuari baimena ematen dio behar adina erregelamenduzko xedapen emateko hura garatzeko eta betearazteko. Hala, xedapen honen bidez garatu eta zehaztu nahi dira Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen xedapenetan bigarren jarduerari buruz jasotako aginduak.

Zehazki, bigarren jarduerako egoeran dauden langileek sostengu, prestakuntza eta laguntza eginkizunak beteko dituzte, eta inola ere ez dute esku hartuko ezbeharretan zuzenean. I. eranskineko taldeetako bateko lanpostuak beteko dituzte.

Horrenbestez, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2017ko XXXXXX XXko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

## **I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak**

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru dekretu honen xedea da uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 55. artikulua garatzea (8/2005 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzkoa). Bigarren jarduerako egoerari buruzkoa da aipatutako artikulua, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan suhiltzaile edo suhiltzale-kabo diren langileentzat.

### 2. Horretarako, erregelamendu honek honako alderdi hauek arautzen ditu:

- a. Zer arrazoik ekarriko duen bigarren jarduerara sartu ahal izatea.
- b. Bigarren jarduera egoerara igarotzen diren langileek zer lanpostu beteko dituzten.
- c. Bigarren jarduerako egoeran dauden langileek bete beharreko eginkizunak.
- d. Bigarren jarduerako egoeran dauden langileen lan baldintzak.
- e. Bigarren jarduerako egoerara iristeko prozedura administratiboak, baita lanpostu horiek eskuratzea ere.

### 2. artikulua. Bigarren jardueraren definizioa.

Foru dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, bigarren jarduera egoera administratibo berezia da, funtsezko helburu duena Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan suhiltzaileen edo suhiltzale-kaboen lanpostuak betetzen dituztenen gaitasun psikofisiko egokia segurtatzea, eta, hala, zerbitzuaren eraginkortasuna eta langileen segurtasuna bermatzea.

## **II. KAPITULUA. Bigarren jarduerarako sarbidea**

### 3. artikulua. Zer arrazoik ekarriko duen bigarren jarduerara sartu ahal izatea.

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanpostuak betetzen dituztenak bigarren jarduerako egoerara igartzeko arrazoiak hauek izanen dira:

a) Adina.

b) Gaixotasuna edo istripua, beren lanpostuko eginkizunak betetzeko ezintasuna dakarrena.

4. artikulua. Adina.

1. 55 urte betetzen direnean, suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanpostuak betetzen dituzten langileak automatikoki igaroko dira bigarren jarduerako egoerara.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, norberak hala nahita, berariaz, eska daiteke zerbitzu operatiboan jarraitzea.

Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, gutxienez ere 55 urte bete baino hiru hilabete lehenago. Epe horretan, azterketa medikoa eta gaitasun fisikoko probak antolatuko dira, frogatuko dutenak lanpostua betetzeko behar diren baldintzak betetzen direla.

Barneko esparruan eskumenak dituen zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez adieraziko da zerbitzu operatiboan jarraituko duela.

Urtero berritu daiteke zerbitzu operatiboan jarraitzeko aukera, aurreko lerroaldeetan ezarritako beharkizun eta baldintza berberetan.

3. Nolanahi ere, 60 urte betetzean, nahitaez igaroko dira bigarren jarduerako egoerara.

5. artikulua. Gaixotasuna edo istripua.

1. Suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen postuak betetzen dituzten langileak bigarren jarduerako egoerara igaroko dira, baldin gaixotasunagatik edo istripuagatik ezindurik gelditzen badira beren postuko eginkizun operatiboak betetzeko.

2. Artikulu honetan aipatutako arrazoiengatik bigarren jarduerako egoerara igartzeko prozedura honela has daiteke:

a. Interesdunak eskatuta

b. Ofizioz has dezake Barneko esparruan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak.

3. Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak erabakiko du eginkizun operatiboak betetzeko ezintasuna. Behar den irizpen medikoa emanen du, eta eskumena duen organoari igorriko dio.

6. artikulua. Bigarren jarduerako egoera deklaratzeko prozedura.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak ebatziko du ea funtzionarioa bigarren jarduerako egoerara igaro daitekeen. Hasierako eguna ezarriko du, eta zerbitzu operatiboan lanpostu hutsa sortuko du, ezintasuna gaixotasun edo istripu batek eragindako kasuetan.

7. artikulua. Zerbitzu operatibora itzultzea.

1. Adinagatik deklaraturako bigarren jardueraren kasuetan, zerbitzu operatibora itzultzeko aukera izanen da, interesdunak eskatuta, behin bakarrik, baldin, 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, frogatzen bada lanpostuan aritzeko behar diren baldintzak betetzen direla. Horretarako, azterketa medikoa egingen da, eta gaitasun fisikoko probak gainditu beharko dira.

2. Ezintasuna ekarri duen gaixotasunagatik edo istripuagatik deklaraturako bigarren jarduerako kasuetan, zerbitzu operatibora itzultzeko aukera izanen da, baldin zerbitzu emateko behar diren baldintza fisikoak eta psikikoak berreskuratzen badira. Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoaren irizpenaren bidez frogatuko da hori, eta foru dekretu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko da.

### **III. KAPITULUA. Eginkizunak eta lantaldeak**

8. artikulua. Bigarren jarduerako egoeran dauden langileen eginkizunak.

1. Bigarren jarduerako egoeran dauden langileen eginkizuna da larrialdian sostengu teknikoa ematea, fase hauetan:

a. Gertakariaren aurretik: prebentzio eta zabalkunde lanak egitea.

- b. Gertakariaren bitartean: logistika eginkizunak.
- c. Gertakariaren ondoren: lehengoratzeko eta normaltasuna berrezartzeko lanak.

2. Zehazki, larrialdian sostengu teknikoa emateko eginkizunak honako hauek izanen dira:

- a. Larrialdiaren eremuko prebentzioa.
- b. Herritarrentzako informazioa eta zabalkundea.
- c. Suteen kontrako babesari dagokionez, ikuskapenak egitea eta legea betetzen dela zaintzea.
- d. Irakaskuntza eta barne prestakuntza.
- e. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren zerbitzu operatiboan hitzartutako taldeei prestakuntza eta trebakuntza ematea.
- f. Laguntza teknikoa eta logistikoa.
- g. Prestakuntzarako eta zabalkunderako ikus-entzunezko materiala eta edukia argitaratzea eta garatzea.
- h. Mobilizazio operatiboak koordinatzea eta jarraipena egitea.
- i. Esku-hartzeen kudeaketa eta horietarako sostengu informatikoa ematea.
- j. Baliabideak mobilizatzea eta jarraipena egitea.
- k. Suhiltzaile boluntarioen etxeen sarerako sostengua ematea, eta mantentzeaz eta prestakuntzaz arduratzea.
- l. Prestakuntzaren eta mantentzearen eremuko laguntza logistikoa.
- m. Ibilgailuen, makinen, tresnen eta zerbitzuko beste lanabes batzuen mantentze-lanak eta konponketak.
- n. Ekipo berezien berrikuspena eta mantentze-lanak.
- o. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak berezko dituen gunek eta instalazioetako mantentze-lanak eta konponketak.

- p. Arloei eta zerbitzu operatiboari sostengu logistikoa eta teknikoa emateko beste batzuk, honako hauek: ureztaketa gailuak, ariketak, simulakroak, jardunaldi teknikoak eta era guztietako jarduerak.
- q. Arlo operatiborako sostengu zuzena edo zeharkakoa diren gainerakoak.

#### 9. artikulua. Bigarren jarduerako lanpostuen taldeak.

1. Taldeetan egituratzen dira bigarren jarduerako egoeran deklaraturako langileek bete ditzaketen lanpostuak.

Talde bakoitzak ezarrita izanen ditu honako hauek: menpekotasun funtzionala, helburu berariazko batzuk, eginkizunak, ordutegiak, kasua bada prestasuna, gutxieneko eta gehieneko kide kopurua, kokapena edo destinoa eta lehentasuna.

2. Erregelamendu honen I. eranskinean zehazten dira aurreko puntuan aipaturako taldeak.

3. Barneko esparruan eskumenak dituen departamentuko titularrak aldatzen ahal ditu talde horien ezaugarriak, lan baldintzak eta lehentasunak, foru dekretu baten bidez, langileen ordezkariak edo zerbitzuko zuzendariak proposatuta. Horretarako, alde aurretik, erregelamendu honen 18. artikuluan arabera eraturako jarraipen batzordearen menpe jarriko da.

### **IV. KAPITULUA. Bigarren jarduerako lanpostuak esleitzea eta hornitzea**

#### 10. artikulua. Esleipen funtzionala.

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendariak bigarren jarduerako egoerara iritsitako langileak esleituko ditu 9. artikuluan aipaturako eta I. eranskinean ezarritako taldeetako postu batera. Irizpide hauen arabera egingen da esleipen hori:

- 1. Postuaren eginkizunak betetzeko egokitasun teknikoa.

2. Gaitasun psikofisikoa, ezarritako agindu medikoen arabera, baldin langilea bigarren jarduerako egoerara iritsi bada gaixotasunagatik edo istripuagatik.
3. Taldean lanpostu hutsak izatea.

#### 11. artikulua. Lekualdatze lehiaketa.

1. Urteko azken hiruhilekoan, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendariak lekualdatze lehiaketa baterako deia egingen du, bigarren jarduerako egoeran dauden langileentzat bakarrik, sarbidea edozein izanik ere, taldeetako lanpostu hutsekin, gehienez ere egoera horretan dauden langile adina lanposturekin.

2. Lehiaketako postu eta taldeen zerrenda eguneratua izanen du deialdiak.

3. Talde bati atxikitako langileen erreferentziazko gutxieneko atalasearen 1/3k parte har dezake lehiaketan.

Lehiaketan parte hartzeko lehentasuna ezartzeko, lehenik egonen dira taldean antzintasun handiena dutenak, eta, berdinketarik izanez gero, bigarren jardueran izandako denboraren arabera ebatziko da, eta hala ere berdinketa izanez gero, kontuan hartuko da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan izandako antzintasuna.

4. Hauxe izanen da lanpostu hutsak aukeratzeko lehentasun irizpidea: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan emandako zerbitzuak, eta, berdinketarik izanez gero, izangai zaharrenaren alde egingen da.

5. Hautaketa sistema publikoa izanen da. Lehenbiziko txandan, deialdiko lanpostu hutsak aukeratuko dira. Gero, bigarren txandan, lehenbiziko txandan sortutako lanpostu hutsak eta lehenbiziko txandan eskaini baina bete ez direnak eskainiko dira, eta hala behin eta berriz.

6. Lehiatzaileak medikuaren aginduarengatik aukeran dituen taldeak mugaturik baditu, edo bigarren jarduerako egoerara nahitaez iritsi bada 60 urte betetzeagatik, beste talde batera esleitu daiteke, nahiz eta horrek berarekin ekarri taldeari dagokion gehieneko atalasea gainditzea.

#### 12. artikulua. Behin-behineko destinoa.

1. Hurrengo lekualdatze lehiaketa egin arte, urte horretan bigarren jarduerara iristen diren langileei behin-behineko destinoa emanen zaie, lanpostu hutsak dituen talde batean, baina atxikipen horrek ez du eskubiderik sortuko.

2. Behin-behineko destinoa duten langile horien betebeharra da deitzen den lehenbiziko lekualdatze lehiaketan parte hartzea.

3. Bigarren jarduerako postu batera behin-behinekoz esleitutako langileak ezin izanen dira handik aldatu salbu gutxieneko atalasea bete gabe bada 1. lehenbiziko talde batean. Kasu horretan, postuan antzinasun txikiena duena kenduko da, behin bakarrik, hurrengo lekualdatze lehiaketa arte, lanposturako eskubidea galdu gabe, salbu horretarako boluntarioak badaude, eta bat baino gehiago izanez gero, antzinasun handiena duenak izanen du lehenasuna.

## **V. KAPITULUA. Bigarren jarduerako egoeran dauden langileak**

### *1. atala: Eskubideak*

13 artikulua. Eskubideak

Galarazi gabe Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan ezarritakoa, bigarren jarduerako egoeran dauden langileek honako eskubide hauek izanen dituzte:

- a. Suhiltzaile izaerari eustea.
- b. Bere eginkizunak betetzeko egoki den prestakuntza jasotzea.
- c. Laneko arrisku berariazkoen buruzko informazio guztia jasotzea, laneko arriskuen prebentzioan indarrean den legeriaren arabera, baita norberaren babeserako bitarteko egokiak izatea ere, beren lana segurtasunez egiteko.
- d. Dagozkien ordainsariak jasotzea.
- e. Ematen den zerbitzua hobetzeko proposamenak egitea.
- f. Ezarritako aldi behingo azterketa medikoak izatea.
- g. Lana egiteko behar den ekipamendua izatea.
- h. Destino operatiboko suhiltzaileen etxean jarraitzea, baldin etxe horretan lanposturik bada.



#### 14. artikulua. Ordainsariak.

1. Lanpostu operatiboan zituen oinarrizko ordainsari kontzeptu guztiak jasoko dituzte bigarren jarduerako egoerara iristen diren langileek.

2. Ordainsari aldakorren kasuan, azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera ordainduko dira. Foru dekretu haren bidez arautu ziren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak.

### *2. atala: Betebeharrak*

#### 15. artikulua. Betebeharrak.

Galarazi gabe Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan ezarritakoa, bigarren jarduerako egoeran dauden langileek honako betebeharrak izanen dituzte:

- a. Beren arduradunek agindutako eginkizunak betetzea.
- b. Talde bakoitzerako ezarritako lan ordutegia betetzea.
- c. Erregelamendu honetan ezarritako eginkizunak betetzea.
- d. Esleipen-taldean ezarritako prestakuntza eta birziklatze ikastaro guztiak egitea.
- e. Ezarritako proba mediko eta/edo profesional guztiak egitea eta gainditzea.

#### 16. artikulua. Lanaldia.

1. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko jarduneko zerbitzu operatiboan dauden langileentzat ezarritako urteko lanaldia izanen dute bigarren jarduerako egoeran dauden langileek ere.

2. Eguneroko lanaldia, oro har, 7 ordukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, eta bestelako ordutegiak ere ezar daitezke, txandei, gauei eta jaiegunei dagokienez, talde bakoitzak dituen eginkizun berezien arabera.

#### 17. artikulua. Prestasuna.

1. Prestasuna behar duten lantaldeko kideek guardia lokalizatuko sistema bat izanen dute ezarria. Aldi horietan, horien presentzia behar izanez gero, bertaratzeko gehieneko denbora hogeita hamar minutukoa izanen dira.
2. Guardia lokalizatuak egiten dituzten taldeek ordu murrizketarekin konpentsatuko dituzte orduak: hamabost minutu ordu lokalizatu bakoitzeko.

### **VI. KAPITULUA. Jarraipen Batzordea**

#### 18. artikulua. Jarraipen batzordea.

1. Erregelamendu honen xedeari dagokionez, jarraipen batzordea eratu da, kontsultarakoa. Barneko esparruan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko ebazpenaren bidez izendatuko dira haren kideak, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko ordezkari sindikalek proposatuta.
2. Gehienez ere 10 lagunek osatuko dute jarraipen batzordea, eta ordezkaritza paritarioa izanen da Administrazioaren eta erakunde sindikalen aldetik.
3. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:
  - a. Erregelamendu hau aldatzeko proposamenak egitea, eta, kasua bada, aldaketa-proposamenak aztertzea.
  - b. Urteko lekualdatze lehiaketa aztertzea.
  - c. Taldeen ezaugarriak, lan baldintzak eta lehentasunak aldatzeko proposamenak aztertzea, erregelamendu honen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.
  - d. Erregelamendu honen edukiarekin lotutako beste edozein eginkizun.
4. Batzordeak berak eman ditzake bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak.

#### XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Lehenbiziko lekualdatze lehiaketa.

Deitzen den lehenbiziko lekualdatze lehiaketan kontuan hartuko dira zer ezaugarri dituzten prestakuntza berariazkoa behar duten postuek, funtzionamenduaren jarraitutasuna bermatzeko.

#### XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Antolaketa neurriak.

Langile baten kasuan desberdinak badira bigarren jarduerako egoerako destinoa eta egoera operatiboko azken destinoa, antolaketa neurriak ezar daitezke bere lanpostua dagoen tokira zuzenean sartzeko.

#### AZKEN XEDAPENETAN LEHENA. Garapenerako gaikuntza.

Barneko esparruan eskumena duen departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko.

#### AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.